# Xedapen Orokorrak

## OSASUN SAILA

### 3722

AGINDUA, 1993ko azaroaren 3koa, Osasun sailburuarena, Bihotz eta Odol-basoetako Gaisotasunei buruzko Euskadiko Kontseilu Aholkuemailea eratzeko dena.

Osasun Sailak egin dituen epidemiologi ikerketetan ikus daitekeenez, bihotz eta odol-basoetako gaisotasunak eta, bereziki, gaisotasun koronarioak eta garun eta odol-basoetako bapateko okertzeak, gaur egun ere, arazo benetan larriak dira, dauden hilkortasun eta gaisotze tasa handiak, eta ondorioz, horrek dakarren giza eta osasun mailako kostuak kontutan hartuz gero.

Horregatik, Eusko Legebiltzarrak 1993ko ekainaren 23an onartu zituen erabakietan jasotzen den lehentasunetariko bat da hain zuzen ere, gaisotasun horiei aurre egitea.

Bestalde, hartu behar diren erabakiak konplexuak direnez gero, irtenbideak aurkitzen lagunduko duten aholku-organoak eratzea komenigarria da.

Abuztuaren 3ko 240/1993 Dekretuaren bidez, Osasun Saileko Kontseilu Aholkuemaileen araubidea onartu zen.

Hori dela eta, hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Bihotz eta Odol-basoetako Gaisotasunei buruzko Euskadiko Kontseilu Aholkuemailea sortzea. Osasun Sailari atxikitako organoa izango da eta bihotz eta odol-basoetako gaisotasunei buruz laguntza teknikoa emango du.

*2. atala.*– 1.– Bihotz eta odol-basoetako gaisotasunei buruz, eta bereziki, gaisotasun koronarioei eta garun eta odol-basoetako bapateko okertzeei buruz ekintzarako plan baterako proposamena egitea izango du eginbeharrik nagusiena, gero, Osasun Saileko organo kudeatzaileak onartu beharko duena.

2.– Planerako proposamenak, gutxienez, hauek jaso beharko ditu:

a) Helburu nagusien eta ihardutze-jarraibideen zerrenda, lehentasunak jarrita.

b) Programa bereziak, xede operatiboak finkatuta.

c) Beharrezkoak diren baliabideak.

d) Organo eratzunkizundunak, plana aurrera eramateaz edo, kasuan kasu, organoen arteko koordinazio lanez arduratuko direnak.

3.– Zeregin hauek ere izango ditu:

a) Bihotz eta odol-basoetako gaisotasunei buruzko oinarrizko aurrehartzea eta osasun mailako hezkuntza gaietan lehentasuna duten planen norabide eta ekintzei buruz informazioa eman eta laguntzea.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### 3722

ORDEN de 3 de noviembre de 1993, del Consejero de Sanidad, por la que se crea el Consejo Asesor sobre las Enfermedades Cardiovasculares en Euskadi.

Las enfermedades cardiovasculares, en especial la enfermedad coronaria y los accidentes cerebrovasculares, según se desprende de estudios epidemiológicos elaborados por el Departamento de Sanidad, siguen constituyendo hoy en día un grave problema en nuestra Comunidad Autónoma por sus altas tasas de mortalidad y morbilidad y el consiguiente coste socio-sanitario que supone.

Consecuentemente, la actuación contra las citadas enfermedades es una de las prioridades contempladas en las resoluciones aprobadas por el Parlamento Vasco el día 23 de junio de 1993.

Por otro lado, la complejidad de las decisiones a adoptar recomienda la constitución de órganos de asesoramiento que colaboren en la búsqueda de soluciones.

Habiéndose aprobado, mediante Decreto 240/1993, de 3 de agosto el régimen de los Consejos Asesores del Departamento de Sanidad.

Por todo ello,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se crea el Consejo Asesor sobre las Enfermedades Cardiovasculares en Euskadi, como órgano consultivo adscrito al Departamento de Sanidad para el asesoramiento técnico en materia de enfermedades cardiovasculares.

*Artículo 2.*– 1.– Será función principal de este Consejo la elaboración de una Propuesta de Plan de Acción en el área de las Enfermedades cardiovasculares, en especial en la enfermedad coronaria y los accidentes cerebrovasculares, para su posterior aprobación por los órganos directivos del Departamento de Sanidad.

2.– La Propuesta del Plan deberá contener, al menos, los siguientes apartados:

a) Relación priorizada de objetivos generales y líneas de actuación.

b) Programas específicos con fijación de objetivos operativos.

c) Determinación de recursos necesarios.

d) Determinación de órganos responsables, tanto de su desarrollo como, en su caso, de la coordinación entre ellos.

3.– Además, desempeñará las siguientes funciones:

a) Informar y asesorar sobre las líneas y planes de acción prioritarias en materia de prevención primaria y educación sanitaria sobre las enfermedades cardiovasculares.

b) Maila guztietan (oinarrizko sorospena, hospitalizazioa, birgaiketa, ea.) gaisorik dauden pertsonekiko osasun mailako sorospenarekin eta diagnostiko goiztiarrarekin zerikusia duten alderdi guztiei buruz informazioa eman eta laguntzea.

c) Osasun arloko profesionalak behar bezala prestatzen laguntzea eta, behar izanez gero, lankidetzan aritzea.

d) Bihotz eta odol-basoetako gaisotasunei aurrea hartzeko eta gaisoak zaintzeko osasun mailako programak eta zerbitzuak ganorazkoak eta eragileak diren ikertzeko eta ebaluatzeko proiektuetan proposamenak egin, laguntza eman eta, behar izanez gero, lankidetzan aritzea.

*3. atala.–* Bihotz eta Odol-basoetako Gaisotasunei buruzko Euskadiko Kontseilu Aholkuemailea lehendakari batek, idazkari batek eta 14 bokalek osatuko dute eta Osasun sailburuak izendatuko ditu.

*4. atala.–* Bokalak Osasun sailburuak izendatuko ditu. Kontseilua osatuko dutenak hauek izango dira:

– Sociedad Vasco-Navarra de Cardiología elkartea ordezkatuz, lau bokal, hiru, kardiologian espezialista direnak, eta bat, bihotz eta odol-basoetako kirurgian espezialista dena.

– Neurologiako Euskal Elkartea ordezkatuz, bokal bat.

– Bihotz eta odol-basoetako kirurgian gaitasun ezaguna duten eta titularitate pribatukoak diren ospital etxeak ordezkatuz, bokal bat.

– Osakidetzako sorospen zentruak ordezkatuz, lau bokal, bi, ospital eremukoak eta bi, oinarrizko sorospenekoak.

– Osasun Saila ordezkatuko duten lau bokal:

• Osasun Publikorako Zuzendaritzakoa, bat.

• Osasun Plangintza, Antolaketa eta Ebaluaketa Zuzendaritzakoa, bat.

• Osasun Informazio, Irakaskuntza eta Ikerketa Zuzendaritzakoa, bat.

• Osakidetzako Osasun-Sorospeneko Zuzendaritzakoa, bat.

*5. atala.–* 1.– Kontseilua ordezkatzeaz gain, hauek izango dira lehendakariaren egitekoak:

a) Bilkuretarako deia eta gai zerrenda egitea.

b) Eztabaidetan buru izatea eta moderatzaile lanak egitea.

c) Berdinketarik gertatzen bada, berdinketa hori bere botuaz apurtzea akordioak hartu ahal izateko.

d) Lehendakari izateagatik berez datorzkion gainerako egitekoak.

2.– Idazkariak, berezkoak dituen egitekoez gain, hauek egingo ditu: helburuekin lotuta dauden iharduera guztiak bultzatu eta sortzen diren batzorde nahiz lantaldeak koordinatu.

*6. atala.–* 1.– Egitekoak betetzea errazagoa izateko,

b) Informar y asesorar sobre todos los aspectos relacionados con el diagnóstico precoz y la asistencia sanitaria a las personas afectadas a todos los niveles (asistencia primaria, hospitalaria, rehabilitación, etc.).

c) Asesorar y, en su caso, colaborar en la formación adecuada de los profesionales sanitarios.

d) Proponer, asesorar y, en su caso, colaborar en proyectos de investigación y evaluación de la efectividad y eficiencia de los programas y servicios sanitarios destinados a la prevención y asistencia de los que padecen enfermedades cardiovasculares.

*Artículo 3.–* El Consejo Asesor sobre las Enfermedades Cardiovasculares en Euskadi estará compuesto por un Presidente, un Secretario y 14 Vocales, designados por el Consejero de Sanidad.

*Artículo 4.–* La designación de los Vocales se realizará por el Consejero de Sanidad, teniendo en cuenta la siguiente distribución:

– cuatro vocales en representación de la Sociedad Vasco-Navarra de Cardiología, tres especialistas en Cardiología y uno en Cirugía Cardiovascular.

– un vocal en representación de la Sociedad de Neurología del País Vasco.

– un vocal en representación de los centros hospitalarios de titularidad privada de reconocida competencia en el tema de la Cirugía Cardiovascular.

– cuatro vocales en representación de los servicios asistenciales del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, dos del ámbito hospitalario y dos de atención primaria.

– cuatro vocales en representación del Departamento de Sanidad:

• uno de la Dirección de Salud Pública

• uno de la Dirección de Planificación, Ordenación y Evaluación Sanitaria

• uno de la Dirección de Información, Docencia e Investigación Sanitaria

• uno de la Dirección de Asistencia Sanitaria del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.

*Artículo 5.–* 1.– Son funciones del Presidente, además de la representación del Consejo:

a) la convocatoria de las sesiones y la fijación del Orden del Día

b) presidir y moderar el desarrollo de los debates

c) dirimir con su voto los empates a efectos de adoptar acuerdos

d) efectuar cuantas otras funciones sean inherentes a su condición.

2.– El Secretario, además de las funciones que le son propias, ejercerá las siguientes: impulsar todas las actividades relacionadas con los objetivos y coordinar todas las comisiones o grupos de trabajo que se creen.

*Artículo 6.–* 1.– Con el objeto de facilitar el cumpli-

Kontseiluak idazkaritza tekniko bat sortuko du planak, programak eta gainerako proposamenak egin eta idatz ditzan. Gero, Kontseilu Aholkuemailearen Osoko Bilkurak onartu beharko ditu.

2.– Idazkariak eta, Kontseilu Aholkuemaileak izendatutako hiru kidek, gehienez ere, osatuko dute idazkaritza teknikoa.

*7. atala.*– 1.– Egitekoak betetzeko, idazkaritza teknikoak egokitzat jotzen dituen adina lantalde sortzea proposatu ahal izango dio Kontseiluari, ekintzak egingo direneko lehentasunezko eremuak, agindu honetan zehaztutakoak, kontutan hartuz.

2.– Kontseilu Aholkuemailearen kideez gain, kasuan kasuko gaiean gaitasun ezaguna duten pertsonek ere laguntzerik izango dute lantaldeetan, beren laguntza eta lanak interesgarritzat jotzen badira.

*8. atala.*– 1.– Iharduketak egiteko lehentasuna duten eremuak hauek dira: oinarrizko aurrehartzea, diagonosi goiztiarra eta bihotz eta odol-basoetako sorospena.

2.– Aurrekoei laguntzeko ezinbestekoak dira arlo hauek: epidemiologi informazioa, hezketa etengabea eta ikerketa.

*9. atala.*– Kontseilu Aholkuemaile, idazkaritza tekniko eta lantaldeetako kideek dietak eta kalteordainak jaso ahal izango dituzte, abuztuaren 3ko 240/1993 Dekretuaren 7. atalean ezarritakoaren arabera, hala egokitzen bazaie.

*10. atala.*– Dekretu honetan agintzen ez den guztirako, abuztuaren 3ko 240/1993 Dekretuan eta Herri Administrazioen Lege-Jaurbidea eta Administrazioaren Ihardunbideari buruz azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa izango da aplikagarri.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Euskadin bihotz eta odol-basoetako gaisotasunei buruzko ekintzarako plan bat aurkeztu beharko dio Kontseilu Aholkuemaileak Osasun Saileko zuzendaritza organoei, kontseilua sortzen denetik hasi eta sei hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko azaroak 3.

Osasun sailburua,
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.

miento de sus labores, el Consejo creará en su seno una Secretaría Técnica encargada de la elaboración y redacción de los planes, programas y demás propuestas para su posterior aprobación en el Pleno del Consejo Asesor.

2.– La Secretaría Técnica estará compuesta por el Secretario y un máximo de 3 miembros, designados por el propio Consejo Asesor.

*Artículo 7.*– 1.– La Secretaría Técnica podrá proponer al Consejo Asesor la constitución de cuantos grupos de trabajo estime oportunos de acuerdo a las áreas o temas de actuación preferente que se determinan en esta Orden.

2.– Además de los miembros del Consejo Asesor, podrán colaborar en estos grupos de trabajo cualquier otra persona de reconocida competencia en el tema a tratar, cuyas aportaciones y trabajos sean considerados de interés.

*Artículo 8.*– 1.– Se declaran como áreas de actuación preferente: La Prevención Primaria, el Diagnóstico Precoz y la Asistencia Cardiovascular, en todas sus vertientes.

2.– Son áreas imprescindibles de apoyo a las anteriores: la información epidemiológica, la formación continuada y la investigación.

*Artículo 9.*– Los miembros del Consejo Asesor, Secretaría Técnica y Grupos de Trabajo podrán recibir las dietas e indemnizaciones que conforme al artículo 7 del Decreto 240/1993, de 3 de agosto, les puedan corresponder.

*Artículo 10.*– En lo no previsto en esta Orden será de aplicación lo establecido en el Decreto 240/1993, de 3 de agosto, y en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo.

DISPOSICION ADICIONAL

En el plazo de 6 meses, a partir de su creación, el Consejo Asesor presentará a los órganos directivos del Departamento de Sanidad una Propuesta de Plan de Acción sobre las enfermedades cardiovasculares en Euskadi.

DISPOSICION FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de noviembre de 1993.

El Consejero de Sanidad,
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.